Agintariak eta Langileria

Izendapenak, Egoerak eta Gorabeherak

OSAKIDETZA

648

17/2011 EBAZPENA, urtarrilaren 10ekoa, Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuko zuzendari nagusiarena, Roberto Ibarretxe Altube jauna Transfusio eta Giza Ehunen Euskal Zentroko zuzendari gerente izendatzeko dena.

Aztertu egin dugu Transfusio eta Giza Ehunen Euskal Zentroko zuzendari gerentearen lanpostua betetzeko deialdia, zeina Zuzendaritza Nagusi honen urriaren 29ko 2802/2010 Ebazpenaren bitartez argitaratu baitzen 2010eko abenduaren 14ko EHAAn (238. zenbakia).

Eskabideak aurkezteko epea amaitu da, eta lanpostu horretan jarduteko hautagaiek aurkeztu dituzten agiriak aztertu dira, bai eta euren baldintza profesionalak curriculum vitaean jasotako merezimenduen arabera baloratu ere.

Aurkeztutako agiriak ikusita, Roberto Ibarretxe Altube jauna deialdiko lanposturako aproposa dela eta bertan jarduteko trebakuntza egokia duela ikusi da.

Hori dela eta, Zuzendaritza Nagusi honek hau

EBATZI DU:

Lehenengoa.– Roberto Ibarretxe Altube jauna Transfusio eta Giza Ehunen Euskal Zentroko zuzendari gerente izendatzea.

Bigarrena.– Izendapen honek interesatuari jakinarazten zaion egunetik aurrera emango ditu ekonomia- eta administrazio-ondorioak.

Hirugarrena.– Ebazpen honen aurka gora jotzeko errekurtsoa aurkeztu ahal izango zaio Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuko Administrazio Kontseiluari, ebazpena Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu eta biharamunetik aurrera, hilabeteko epean.

Vitoria-Gasteiz, 2011ko urtarrilaren 10a.

Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuko zuzendari nagusia,
JULIÁN PÉREZ GIL.

Autoridades y Personal

Nombramientos, Situaciones e Incidencias

OSAKIDETZA

648

RESOLUCIÓN 17/2011, de 10 de enero, del Director General de Osakidetza-Servicio vasco de salud, por la que se nombra a D. Roberto Ibarretxe Altube para desempeñar el puesto de Director Gerente del Centro Vasco de Transfusión y Tejidos Humanos.

Vista la convocatoria para cubrir el puesto de Director/a Gerente del Centro Vasco de Transfusión y Tejidos Humanos, publicada en el BOPV n.º 238, de 14 de diciembre de 2010, mediante Resolución n.º 2802/2010, de 29 de octubre, de esta Dirección General.

Resultando que finalizado el plazo de presentación de solicitudes, ha sido estudiada la documentación presentada por los aspirantes al desempeño del puesto que se trata, habiéndose valorado sus condiciones profesionales conforme a los méritos aportados en el «Curriculum Vitae».

Considerando que, a la vista de la documentación presentada, D. Roberto Ibarretxe Altube se adecua al perfil del puesto convocado y posee la cualificación idónea para el desempeño del mismo.

En virtud de cuanto antecede, esta Dirección General,

RESUELVE:

Primero.– Nombrar a D. Roberto Ibarretxe Altube Director Gerente del Centro Vasco de Transfusión y Tejidos Humanos.

Segundo.– El presente nombramiento surtirá efectos económicos y administrativos desde su notificación al interesado.

Tercero.– Contra la presente Resolución podrá interponerse recurso de alzada, ante el Consejo de Administración de Osakidetza-Servicio vasco de salud, en el plazo de un mes contado a partir del siguiente al de su publicación en el Boletín Oficial del País Vasco.

En Vitoria-Gasteiz, a 10 de enero de 2011.

El Director General de Osakidetza-Servicio vasco de salud,
JULIÁN PÉREZ GIL.